

MANTENTZE ELEKTRONIKOA

GOI MAILAKO ZIKLOA

Konpetentzia orokorra:

Titulu honen konpetentzia orokorra da tresneria eta sistema elektronikoak –profesionalak, industrialak eta kontsumokoak– mantentzea eta konpontzea, eta horiek mantentzeko prozesuak planifikatzea eta antolatzea, betiere lan- eta ingurumen-arriskuen prebentzioplanak, kalitate-irizpideak eta indarrean dagoen araudia aplikatuta.

Kod	1. MAILA	Ordu
1051	Zirkuitu elektroniko analogikoak	231
1052	Tresneria mikroprogramagarria	231
1055	Elektronika industrialeko tresneriaren mantentze-lanak	165
1054	Ahots- eta datu-tresneriaren mantentze-lanak	132
1709	Enplegarritasunerako ibilbide pertsonala I	120
1665	Produkzio-sektoreei aplikatutako digitalizazioa	60
1708	Produkzio-sistemari aplikatutako iraunkortasuna	30

Kod	2. MAILA	Ordu
1053	Irrati-komunikazioko tresneriaren mantentze-lanak	160
1059	Mantentze-lan elektronikoen azpiegiturak eta garapena	60
1056	Audio-tresneriaren mantentze-lanak	99
1057	Bideo-tresneriaren mantentze-lanak	60
1058	Tresneria elektronikoa muntatzeko eta mantentzeko teknikak eta prozesuak	260
179	Ingeles profesional	63
1710	Enplegarritasunerako ibilbide pertsonala II	63
	Proiektu intermodularra	50
	Hautazko modulua(k)	84

Lanbide eta lanpostu garrantzitsuenak hauek dira:

- Irrati- eta telebista-sistemetako tresneria eta ikus-entzunezko produkzio-sistemetako tresneria gainbegiratzeko eta egiaztatzeko teknikaria.
- Irrati- eta telebista-sistemak eta ikus-entzunezko produkzio-sistemak konpontzeko eta mantentzeko teknikaria.
- Irrati-difusioko sistemetako tresneria gainbegiratzeko eta egiaztatzeko teknikaria.
- Irrati-difusioko sistemak konpontzeko eta mantentzeko lanetako teknikaria.
- Sare lokaletako eta sistema telematikoetako tresneria gainbegiratzeko eta egiaztatzeko teknikaria.
- Sare lokaletako eta sistema telematikoetako tresneria konpontzeko eta mantentzeko teknikaria.
- Sistema domotikoetako, sistema immotikoetako eta segurtasun elektronikoko sistemetako tresneria gainbegiratzeko eta egiaztatzeko teknikaria.
- Sistema domotikoak, sistema immotikoak eta segurtasun elektronikoko sistemak konpontzeko eta mantentzeko teknikaria.
- Irrati-lotuneetako sistemak gainbegiratzeko, egiaztatzeko eta kontrolatzeko teknikaria.
- Audio-tresneria profesionala konpontzeko eta mantentzeko teknikaria.
- Bideo-tresneria profesionala konpontzeko eta mantentzeko teknikaria.
- Tresneria industrial konpontzeko eta mantentzeko teknikaria.